

5.BANAKETA ETA

KOMUNIKAZIO KANALAK

Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?

Lehenik eta behin, badakigu, gure produktua kanalen bidez iritsiko dela bezeroengana, eta kanalen artean, honako hauek bereizten dira:

1. Komunikazio-kanalak: lehenik eta behin, interneten web-orri bat sortuko dugu. Baina web gune honen bidez soilik gurekin kontaktatzeko eta zenbat produktu eta nolakoak nahi dire aukeratzeko aukera emango da, baina ezingo dira erosketak egin; hau da, behin esatean zer nahi duten bezeroek, gure denda fisikora edota Decathlon edo Forum Sportera joan beharko dira produktua jasotzera. Hortaz gain, Forum Sport eta Decathlon dendekin kontaktatuko dugu, gure produktua denda horietan saltzeko proposamenarekin. Gainera, aipatutako bi denda horien iragarkietan gure produktua azaltzeko asmoa daukagu.
2. Banaketa-kanalak: banaketari dagokioenez, gure denda fisikoan edukiko dugu lantegia beraz hor bertan egongo da gure produktua salgai eta hortaz gain Decathlon eta Forum Sport dendetan ere banatuko dugu gure produktua, han saldu ahal izateko.
3. Salmenta-kanalak: gure dendan eta aipatutako beste bi dendetan salduko dugu gure produktua.

Kanalak, bost fasez daude osatuak: pertzepzioa, ebaluazioa, erosketa, entrega eta salmenta ondorengoa.

1. Pertzepzioa: lehenik eta behin, erosleek zer nahi duten aztertuko dugu; hau da, eskiatzeko marka finko bat asko saltzen bada, kontuan hartu ditugu marka horiek dakartzen ezaugarriak; produktuaren kolore, tamaina, aukerak... Horrela, bezero gehiago edukitzeko eta beraien atentzioa deitzeko.
2. Ebaluazioa: Hori egin ondoren, benetan zer nahi duten ebaluatuko dugu. Askok exijitzen badute, neurri batzuk hartu beharko ditugu, batik bat diruaren aldetik, ahalik eta behar gehiago asetu ahal izateko.
3. Erosketa: erosketari dagokioenez, bezeroek, lehen esan bezala, gure dendan, eta Decathlon eta Forum Sport dendetan erosi ditzazkete gure produktuak. Denda fisiko guztietan diruaren bidez edota txartelaren bidez erosi dezakete eta gainera, lehenengo erosketa egin ondoren, bazkidearen

txartela egiteko a ukera aurkeztuko dugu eta hurrengo erosketetan %10eko deskontua edukiko dute.

4. Entrega: erosketa gure denda fisikoetan egin nahi bada, lehenago deia egin edo gure korreora mezu bat bidali beharko dute bezeroek, zenbat produktu eta nolakoak behar dituzten jakiteko, eta guk produzitzen hasteko. Web orri honetan, bezeroren batek zalantzarik baleuka guri galdetzeko aukera egingo dute. Decathlon eta Forum Sporten, berriz, erosi bezain laster eraman dezakete erositakoa beren etxeetara.

5. Salmenta ondorengoa: produktua erosi ondoren arazo bat balego, berehala gurekin kontaktuan jartzeko txartel bat emango zaie gure telefono zenbakiarekin eta hortaz gain web gunean gure telefono eta korreoa ere ezarrita egongo da. Arazorik ez balego baina bezeroren batek zerbait itzuli nahi izanez gero, 30 egungo epea edukiko luke. Behin 30 egun horiek pasatzerakoan, ez genioke itzultzeko aukerarik eskainiko. Eta noski, produktu bat aldatzerako edo itzultzerako garaian, bezeroak ordaindutako kantitatea itzuliko diegu.